



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

AZTIKO EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO HIZKUNTZA POLITIKA

1. XEDEA

AZTIk **Euskararen erabilerrari buruzko Hizkuntza Politika** erabiltzen du euskararen normalizazioa bultzatzeko tresna gisa. Tresna honen bidez, euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin bermatu nahi da, bai barneko harremanetan bai kanpokoetan.

Helburua, hizkuntza kontserbatzea ez ezik, erabilera areagotzea eta sustatzea ere bada.

2. PRINTZIBIO OROKORRAK

Hizkuntza Politikan jasotako irizpideek honako eremu hauei eragiten diete:

1. **Ezagutza**
2. **Kanpo-erabilera**
3. **Barne-erabilera**
4. **Motibazioa eta komunikazioa**
5. **Baliabideak**

Sail guztien ardura izango da ziurtatzea kasu guztietan euskararen erabilerrari buruzko irizpideak zuzen betetzen direla. Halaber, sail guztien ardura izango da, zein bere eragin eremuan, mendeko langile guztiek irizpide horiek ezagutzen dituztela eta aplikatzen dituztela bermatzea.

3. APLIKAZIO-EREMUAK

3.1 EZAGUTZA

Langileak

- Ezarritako hizkuntza irizpideen arabera jardun beharko dutela emango zaie aditzera.
- Langile berrien harreran euskararen erabilera bermatzeko irizpideak ezarriko dira.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- AZTIk **euskalduntzea eta alfabetatzea** lehenetsiko ditu helburu gisa.
- Pertsonen gaitasunen garapena eta hobekuntza sustatzeko, AZTIk urtean behin hizkuntzak ikasteko laguntzen **barne-deialdia** egiten du.
- **Euskara-ikasketak** langileen hitzarmen kolektiboaren baldintzen arabera arautzen dira. Ikastaro hauen helburua langileak beren lan-esparruan euskara erabil dezaten trebatzea da, bai ahozko bai idatzizko komunikaziorako.
- **Euskara-maila igo** nahi duten langileei beharrezko baliabideak eskainiko zaizkie indarrean dagoen hitzarmen kolektiboak eta ezarritako barne-irizpideek jasotzen dutenaren arabera.
- Ahal den neurrian, AZTIk langileen esku jarriko ditu **euskaraz lan egiteko beharrezko tresna eta baliabideak**.
- **Kontratazio-prozesuetan** euskararen ezagutza lanpostuaren izaeraren arabera baloratuko da, AZTIko Euskararen Prozeduran eta indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan jasotako irizpideei jarraituz.

3.2 KANPO-ERABILERA

Errotulazioa

- Euskara hutsean jar daitezke honako kasu hauetan: euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean, testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean edo mezuarekin batera piktograma bat dagoenean.
- Aurreko kasua betetzen ez bada, errotulazioa bi hizkuntzatan (euskara eta gaztelaniaz) jarriko da, euskarari lehentasuna emanez.

Papergintza

- Dokumentuak publikoaren arabera prestatuko dira
- Memoria korporatiboak hiru hizkuntzatan egingo dira (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez).

Ingurune digitala

- Euskararen presentzia sustatuko da sare sozialetan, webguneetan eta kanal digitaletan.
- Web korporatiboak oinarritzko informazioa hiru hizkuntzatan eskainiko du (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez).
- Progresiboki euskararen presentzia handiagotzera joango gara.

Kanpoko ekitaldiak

- Euskadin antolatutako ekitaldietan euskararen erabilera lehenetsiko da, ulermena bermatuz.
- Euskadin antolatutako nazioarteko ekitaldietan euskarak gutxieneko presentzia izango du, agurren eta kortesiazko esamoldeen bidez.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Harrera-hizkuntza

- Harrerako lehen hitza euskaraz egingo da, aurrez aurre nahiz telefonoz.

Bezeroak/erabiltzaileak eta hornitzaileak

- Bezeroen eta hornitzaileen hizkuntza-lehentasunak errespetatuko dira ahal den neurrian.
- Idatzizko eta ahozko komunikazioak euskaraz egingo dira ahal den neurrian.

Administrazioa

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) administrazioekin idatzizko komunikazio formal guztiak (adib.: lehendakariari gutuna) modu progresiboan elebidun bihurtzea landuko da.
- EAEko administrazioekin ahozko komunikazioa euskaraz egingo da ahal den heinean.

3.3 BARNE-ERABILERA

Lanari egokitutako hizkuntza-paisaia

- Barne-seinaleztapenean euskara bakarrik erabili ahal izango da nahasmenik sortzen ez denean edo mezua piktograma batez lagunduta dagoenean.
- Intranetean, pertsonen kontaktuaren alboan, euskaraz dakien ala ez adierazten duen ikurra jarriko da.
- Enpresaren barne-harremanetako eta barne-erabilerako dokumentu eta txantilo guztiak pixkanaka formatu elebidunean jarriko dira.

Pertsonen kudeaketa

- Ahal den neurrian, nominak formatu elebidunean (euskaraz eta gaztelaniaz) jasotzeko aukera egongo da.

Idatzizko komunikazioa

- AZTIko langile guztiei zein talde handi bati bidalitako informazio orokorra euskaraz eta gaztelaniaz emango da, euskarari lehentasuna emanez.
- Barne-komunikazioko mezu elektronikoak lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz idatziko dira.
- Langile euskaldunen artean euskararen erabilera sustatuko da.

Intraneta

- Intraneteko berriak elebidunak izango dira (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Intranet bidez kontsultatu daitezkeen dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira, ahal den guztietan.
- AZTIk itzulpen- eta hizkuntza-laguntzako tresnen erabilera sustatuko du.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Ahozko komunikazioa

- Langile euskaldunen artean komunikazio-hizkuntza euskara izatea bultzatuko da.
- Noizean behin, euskararen ahozko erabilera sustatzeko ekimenak antolatuko dira.

Barne-ekitaldiak eta mintegiak

- Aldez aurretik komunikazioa zabaltzen bada, elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz) izango da.
- Agurra/ongietorria euskaraz hastea lehenetsiko da, baina kasuan kasu aztertuko da.
- Barne-ekitaldietan euskara eta gaztelania erabiliko dira.

4. MOTIBAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

AZTIk euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatuko ditu, bai eta euskararekin lotutako gizarte- eta motibazio-ekimenak ere.

Era berean, plantilla osoari euskararekin lotutako informazioa helarazteko ekintzak egingo dira.

5. BALIABIDEAK: GOBERNANTZA ETA JARRAIPENA

Euskara Batzordea

- Hizkuntza-irizpideak definitu eta garatuko ditu.
- Euskara Planaren elaborazioa sustatuko du.
- Hartutako erabakien ezarpena eta betetzea bermatuko ditu.
- Euskara Plana garatzeko dirulaguntza publikoak kudeatuko ditu.
- Euskara Batzordea gutxienez sei hilean behin bilduko da, eta urtean behin bere jardueraren autoebaluazioa egingo du.